

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko apirilaren 23a / 581. zenbakia



Asier Gardia (zutik, ezkerretik hirugarrena) eta Josu Arana (makurtuta, eskuinean), lagunekin Siria eta Jordanian.

JOXU ARANA ETA ASIER GARCIA ITSASO HILEKO MARATOIAN

JAIK: PAZKOETAKO EGITARAU, GERTU/5 • KULTURA: BIDAIA TALDEA GAUR NOVEDADESEN/12

Musikak ez du adinik Anima Zaitetz...

Matrikulak
Apiriletik Ekainera
zabalik

- Instrumentu musikalak
- Aurre hizkuntza musikala (5 urtetik aurrera)
- Hizkuntza musikala (helduentzat ere)
- Biolina (Suzuki Metodoa 3 urtetik aurrera)

Taldeak: Orkestra, Banda, Abesbatza, Akordeoi Ork



BERGARAKO MUSIKA ESKOLA
Espaloia, Bergara - Tel. 943 765780

SARRERA DOAN

Aste bukaerako
plana zabal-zabalik

Zozketa

Bi lagunendako afaria
Diskoak
Kontzertuak eta antzerkia

943 71 23 93
UTZI MEZUA!

Eguenetan,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Amagoia Lasagabaster

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

SARRERA DOAN
Laguntzaileak:
Bilintx, Arteaga landetxea, Jade, Gili gili



ATREBENTZIAEZPADA/ Liburuak irakurtzeko ohiturarik badaukazu?



ANA OIANGUREN
38 urte

Bai, asko irakurtzen dut, egunero. Azkenengo irakurri dudana liburuak Toti Martinez de Lezearen *La Abadesa* da. Izan ere, batez ere historia liburuak gustatzen zaizkit, Erdi Arokoak.



IÑAKI UNAMUNO
56 urte

Bai, lehen batez ere. Orain aldizkariak eta egunkariak irakurtzen ditut gehiago. Liburuak biografikoak gustatzen zaizkit batez ere, eta narratibakoak ere irakurri izan ditut.




ANA GOENAGA
21 urte

Bai, asko irakurtzen dut. Batik bat abenturazkoak eta misteriozkoak diren liburuak irakurtzea gustatzen zait, eta irakurtzeko aukeratu dudana azken *Harry Potter 4* izan da.



AINZANE OREGI
14 urte

Ez, askorik ez, denbora librerik apenas izaten dut eta. Irakurtzen dudanean *Harry Potter* modukoak nahi izaten ditut, baina azken eskolan esandako bat irakurri nuen.



RAUL LOZANO
20 urte

Bai, gustuko liburuak badi-ra bai. Orain Jon Arretxeren *Larunbatak* liburuak esku artean, baina denetarikoa gustatzen zaizkit, esate baterako politikakoak ere irakurri izan ditut.



ALBERTO SEGO
34 urte

Zoritarrez oso gutxi irakurtzen dut. Izan ere, ez daukat horretarako denborarik. Irakurtzen dudanean denetarikoa liburuak aukeratzen ditut: historia-koak, fantasiakoak...

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK IBAIONDO ZIKIN Ibaiondon bizi den emakume batek bere kexa azaldu nahi izan du etxe azpian egoten den zikinkeria dela eta. Berak esan digunez, jende gaztea egoten da bertan eta jandako litxarkerien paperak, freskagarri latak... botata lagatzen dituzte. Bertan bizi direnendako ez da batere polita etxetik irten eta ikusten dute-na. Udalera jo arren ez diete irtenbiderik ematen. /I.A.

ETABARRUAN...

<p>ASTEKO BERRIAK /5</p> <p>Jaietako egitaraua</p> <p>Udaleko Jai Batzordeak gertu dauka dagoeneko aurtengo Pazkoetako egitaraua.</p>	<p>KIROLA /10</p> <p>Piraguismoa Bideberri</p> <p>Eskola arteko piraguismo txapelketa jokatu da bihar, zapatua, Bideberri.</p>	<p>KULTURA /12</p> <p>Bidaia, Bergaran</p> <p><i>Iparraldea bertan</i> programaren barruan, Bidaia taldeak emanaldia egingo du gaur Novedadesen.</p>
--	---	---

ASTEKO DATUA

18

BIKOTE LEHIAN BERGARA HIRIA TXAPELKETAN


Hemezortzi bikotek hasi dute Bergara Hiria pilota txapelketan, nagusien mailan zein 22 urtetik azpikoen mailan. Maiatzaren 31ra arte martitzenero izango dira partiduak Udal Pilotalekuan.

BESTEKE SANA

“Berdintasuna erreala izan artean, emakumeak, bere borroka historikoarengatik, eskaintzen dizkieten ardura karguak onartzera behartuta daudela uste dut. Bestela ez ginateke etorkizuneko belaunaldien-dako bideak irekitzen egongo”
GARMEN GALLASTEGI/
Eusko Jaurlaritzako Kontseilari ohia
El Diario Vasco/04-04-18

“Zauden tokian ondo egotea da politena, edo zailena, askotan. Beti esan ohi dut antzerkian hobeto pasatzen dudala. Zergatik? Ikusleak aurrean, eta gertu daukazulako. Segituan jasotzen duzu erantzuna: barreak direla, negarra dela, edo amaletako txaloak direla.”
MIREIA GABILONDO/
Aktorea
Irutxulo/04-03-26

BERAIEK DINOE/ Iñigo Garitano



“Ni Presidente banintz...”

Telebista gustukoa dut. Entreenimendu atsegina dela iruditzen zait. Hori bai, gaur egun, kate gehienetako programazioa negargarria da. Informatiboak, telebista publikoetan, gobernuko prentsa kabinteen parteak dirudite, eta pribatuetan, enpre-setako jabeen interes ekonomiko-politikoaren zerbitzura eskainiak. Entreenigarri saioetan, bihotzeko eta gainontzeko erraiei buruzkoak ez badira, apenas dago ezer. Filmak, publizitate bukazezina tartean dagoela, ikusezinak. Hau panorama!

Aspertuta nago entzuten programazio mota hori ikusleak eskatzen duela. Gezurra. Ikusleak dagoena ikusten du. Eta ez dago aukerarik. Ikusleak, nik neuk adibidez, ez du nahi telebista aspergarririk, dokumentalez jositakoa. Ez, ez da hori. Entreenimendua nahi dugu, baina ez eguneroko zabor arrazioa. Tamalez, kompetentziak ez du produktua hobetu.

Deigarria da ETBk haurrei zuzendutako saio arrakastatsuenak duela 25 urte baino gehiago TVEn ikusten genituenak izatea. Esanguratsua da kultuzko saioak duela 20 urte ekoiztu zirenak izatea, gaur egun DVD eta bideo formatuan saltzeko telebistetan iragartzen direnak.

Ehunka telebista sortzaile izugarri onak daude hainbat eta hainbat proiektuekin, baina telebistetako enpre-sen arduradunek ez diete aukerarik ematen. RTVEN aldaketa izango da Madrilgo gobernu berriaren ondorioz.

Zuzendari Nagusiak erronka galanta du hain desprestigiatu dagoen kate hori duintzen: bai informazioari dagokionez, baita gainontzeko edukiei buruz ere. Fernando G. Tolaren saio gogoratu baten izenburua erabiliz, “Ni Presidente banintz...”, orain du aukera “Presidentetarako” etxe horri buelta emateko. Hemen, txoritxoaren “gure” etxeari astindu on bat emateko premia badagoela ezin dute ahaztu bere arduradunek.

“Aspertuta nago entzuten programazio mota hori ikusleak eskatzen duela. Gezurra”

Berrigara
Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Irati Agirreazaldegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 23
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

ZAPATUA, 24
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

DOMEKA, 25
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

ASTELEHENA, 26
MOZOS, Iparragirre 2. 943 76 12 15

MARTITZENA, 27
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA, 28
ZABALA, Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUENA, 29
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (banda) 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 53 47 20
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

UDALA
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuaren etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar. 943 76 04 68
Akulu AEK. 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Labegaraieta Domekak: 11:00. San Lorentzo Zapatuak: 20:00. Angiozar Domekak: 11:30.
Santa Marina Domekak: 11:00, 13:00. Zapatuak: 19:00.	Moja Zaharrak Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 11:00. Mizpirualde Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
Sierbak Lanegunak: 19:30	Antzuola Domekak: 09:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Osintxu Domekak: 12:30. Zapatuak: 19:00.	Uzarraga Domekak: 10:00.
Elosu Domekak: 10:30.	Elgeta Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30. Domekak: 12:00.
Ubera Domekak: 10:30.	
San Juan Domekak: 11:00.	
Elorregi Domekak: 10:30.	

URTE-MEZAK
Santa Marina
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.

San Pedro
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1935EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA APIRILAREN 25EAN
1935ean jaiotako bergararrak bazkaria egingo dute apirilaren 25ean Zumelaga jatetxean, 14:00etan. Izenematea Euskadiko Kutxan, 12 euro ordainduta. Argibideak 943 76 27 12 (Regino Valle) telefono zenbakian.

1965EAN JAIOTAKOAK
1965ean jaiotako enafaria maiatzaren 15ean Txarran-txa jatetxean. Aurretik Pol-Polen elkartuko dira, 19:00etan. Izenematea Arrano, Pol-Pol, Etxagi eta Popis tabernetan.

1968AN JAIOTAKOAK
1968an jaiotako enafaria maiatzaren 15ean Antxonij jatetxean. Egunean bertan Sagarpe elkartearen elkartuko dira, 19:30ean. Izenematea (20 euro) Euskadiko Kutxan irekitako kontuan: 3035 0009 1800 9110 9183.

1963AN JAIOTAKOAK
1963an jaiotako enafaria maiatzaren 15ean Azpeitxij jatetxean. Izenematea (10 euro) Ariznoa tabernan egin daiteke.

ODOL ATERATZEA EGUAZTENEAN
Bergarako Odol Emailek aditzera eman dute hurrengo odol ateratzea eguaztenean, apirilaren 28an, izango dela, Seminarioan, 18:30ean hasita.

JARDUNENAGENDA

IPUIN LEHIAKETA
Debagunek ipuin barregarriaren lehiaketa deitu du. Lehen saria 450 euro da, eta Debagoieneko onenak 150 euro jasoko ditu. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 28ra arte izango da zabalik. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolua (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Purita Iturbe moja, Ruandatik bueltan

Purita Iturbe moja domingotarra elkarrizketatu genuen 1994ko apirilean. Hamabost urte Ruandan eman ondoren, handik etorri berria zen. Egoera nahasia bizi zuen Ruandak sasoi hartan, jutuen eta tutsien arteko gatazka zela-eta. Izan ere, milaka hildako izan ziren Ruandan.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Ankajoku”



Aintxixiketa, zerbaiti ihesi.
—Keixa lapurretan zebitzen mutikuak,
eta angu ankajokua baserritarra azaldu zanian.

ASTEKOPELIKULAK

‘SCARY MOVIE 3’
ZUZENDARIA: DAVID ZUCKER. AKTOREAK: ANNA FARIS, ANTHONY ANDERSON, CHARLIE SHEEN.

HARIA. Cindyk erreportari dabil lanean, estralurtarren eta mamuen gaineko albisteak ematen. Lurra salbatzeko hautatu dutela konturatuko da... Beldurrezko filmen parodia.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan, 17:00etan. 19:30ean 22:30ean; domekan, 17:00etan. 19:30ean 22:15ean eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA 1°C
Eguena, 15

MAXIMOA 22°C
Martitzena, 20

ASTEKO EURIA (l/m²) 3,6 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 14	14 °C	6 °C	- l/m ²
Eguena, 15	20 °C	1 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 16	13 °C	4 °C	0,9 l/m ²
Zapatua, 17	13 °C	7 °C	4,1 l/m ²
Domeka, 18	12 °C	6 °C	3,4 l/m ²
Astelehena, 19	16 °C	3 °C	0,6 l/m ²
Martitzena, 20	22 °C	10 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

‘EL PRINCIPIO DE ARQUÍMEDES’

ZUZENDARIA: GERARDO HERRERO. AKTOREAK: MARTA BELAUSTEGI, ROBERTO ENRIQUEZ.

HARIA. Soniak arrakasta du lan egiten duen moda enpresan. Rocio bere lagunak ere enpresa berarentzat egiten ditu lanak. Haien bizitza aldatu egingo da ustekabeen.

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluba. Eguenean, apirilaren 29an, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
Tel.: 943 76 45 53 Tel.: 943 78 24 13

JAIK/ Aurtengo jaietako aurrekontua 110.000 euro izango da

Jai batzordeak gertu dauka dagoeneko aurtengo Pazkoetako egitaraua

EDU MENDIBIL

Pazkoetako egitarauari azken ukituak ematea besterik ez da falta. Herriko jaiak maiatzaren 28tik ekainaren 1era bitartean ospatuko dira, eta ez da aparteko nobedaderik izango aurtun. Azken urteotako ekitaldiei eutsi die Udaleko Jai batzordeak.

Jarduera, kultur talde, gazteria eta jaiak batzordean diren herriko taldeek Pazkoetako programa lantzen jardun dute azken hila-beteak. Esan bezala, aurtengo jaietarako aurrekontua 110.000 eurokoa izango da. Udaleko iturriek esandakoaren arabera, aurrekontuak dezente egin du behera eta horren aurrean ez da egon aparteko ekitaldirik ekartzeko aukera.

MUSIKA EMANALDIK

Jaietako egitaraua azken urteotako programaren antzekoa izango da. Ohikoa denez, Bitorianaxoren jaitsierak emango die hasiera jaiari, maiatzaren 28an. Gauean, Aritzeta abesbatzaren 25. urteurrena ospatzeko, kontzertua izango da Udal Pilotalekuan. Aritzetaekin batera, Sorazuzeko Ezozki abesbatza, Eibarko Sostoa, Bergarako Orfeoia, Gabero abesbatza, Orkestra eta Alai taldea izango dira taula gainean.

Rock musikak ere tarte berezia izango du Bideberriko kontzertuetan. Besteak beste, Pin



Gaztetxoendako hainbat ekitaldi izango dira jaietan, maiatzaren 28tik ekainaren 1era bitartean.

Pan Pun Band, Arima Beltza, Non Servium edota Red Wine taldeak izango ditugu bisitari.

Era berean, dantzaldiak izango dira San Martin plazan eta Espoioian. Ekainaren lehen Egan taldea izango da Plazan.

Zezen Zaleak taldeak antolatutako zezenketa maiatzaren 28an

*Aritzeta*ren 25. urteurrenako kontzertua frontoian eta rock gauak Bideberri

izango da eta horrez gain entzierroak izango dira.

Barrakak, ohikoa denez, Matxiategin jarriko dituzte eta prezioa 1,5 eurokoa izango da.

Bestalde, jaien azken egunean herri bazkaria egingo da San Martin plazan, azken urteotan moduan.

LABUR

Emakumeendako autoestima ikastaroa

Udaleko Gizarte Zerbitzuek emakumeei zuzendutako autoestima ikastaroa antolatu dute.

Izenematea 943 77 91 25 telefonoan egin daiteke. Plazaz mugatuak.

LABek eta Duinak-ek manifestazioa deitu dute eguaztenerako

LAB sindikatuak eta Duinak taldeak deituta, Lan Osasuna eta Segurtasuneko Nazioarteko Eguna ospatzeko manifestazioa egingo da Bergaran eguaztenean, apirilaren 28an.

Manifestazioa San Martin plazatik abiatuko da, 19:00etan. LABek eta Duinak taldeak parte hartzeko deia egiten dute.

Abdon Juaristi pintura lehiaketa, Zezen Zaleen eskutik

Zezen Zaleak taldeak VII. Abdon Juaristi pintura lehiaketa deitu du. Gaia *Zezenak Bergaran* izango da eta estiloa eta teknika aukeran izango dute egileek. Irabazleak 1.000 euro eta plaka oroigarria eskuratuko ditu. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 6tik 13ra bitartean izango da zabalik, kultura etxean.



Foru Ogasunak egoitza berria Toki-Ederren

Mintegi kalean zegoen Foru Ogasunaren egoitza Toki-Eder plazako 5. zenbakira pasa da. Datorren astelehenean, hilaren 26an, zabalduko da Errenta Aitorpena egiteko kanpaina eta beraz herritarrek lokal berrira jo beharko dute. Txanda hartzeko 902 100 040 zenbakira deitu dezakezue. Argibide gehiago www.gipuzkoa.net/ogasuna web orrian.

San Prudentzio jaiak izango dira Elorregin, domekatik aurrera

E.M.

Elorregiko auzotarrek San Prudentzioren omenezko jaiak ospatuko dituzte datozen egunotan. Elorregiko Jai Batzordeak hainbat ekitaldi iragarri ditu domekatik aurrera. Jaiak domekan, hilaren 25ean, hasiko dira. Auzoko emakumeendako txokolatea eta txurroak izango dira Alkartasuna elkartearen. Martitzenean, berriz, tantaia jasoko dute eta eguaztenean, San Prudentzio egunean, meza izango da 19:00etan, Elorregiko elizan. Ondoren, gauaz, auzoari buruzko pelikula zaharren emanaldia egingo da auzoko elkartearen.

AUZO BAZKARIA

Bestalde, datorren zapatuan, maiatzaren lehen, auzo bazkaria izango da Elorregin. Bertan izango dira Angel Mari Peñagarikano eta Xabier Amuriza bertsolaria, besteak beste. Trikitilariak




Angel Mari Peñagarikano bertsolaria Elorregin izango da datorren zapatuan.

ere ez dira faltako, giroa are gehiago animatzeko. Bazkarira joateko interesa dutenek Alkartasuna elkartearen (943 76 05 63 telefonoan) eman dezakete izena.

Aurtengo jai egitarauarekin bukatzeko, domekan, maiatza-

ren 2an, Alai Taldeak lagundutako meza nagusia izango da 10:30ean eta jarraian Moises Aspiazu dantza taldeko gaztetxoek eta trikitilariak jardungo dute. Pilota partiduak ere izango dira Elorregiko frontoian.



Maite Guridik, Mila Elortzak eta Mikel Eguren aurkeztu zituzten jasotako sinadurak udaletxean.

POLITIKA/ Herriko 22 talderen eta 368 herritarren atxikimendua jaso dute

Bergara Aurrerak Udalean ordezkariak aldarrikatu du

EDU MENDIBIL

Azken udal hauteskundeetan udalbatzatik kanpo geratu izana salatzen idatzia aurkeztu zuen Bergara Aurrera taldeak Aste Santu aurretik, udaletxean. Plataformari dagokion ordezkariak politikoa aitortzea eskatzen du Bergara Aurrerak.

Bergara Aurreraren izenean, Mila Elortzak, Maite Guridik eta Mikel Eguren eraman zituzten udaletxera jasotako sinadurak. Guztira, 368 herritarren eta 22 talderen atxikimendua jaso du Bergara Aurrera taldeak: LAB, Udaleko Enpresa Komitea, Segi, Ikasle Abertzaleak, EHE, EPA, ESK, Bai Euskal Herriari, Askatasuna, Etxerat, Gazte Asanblada, Txapa Irratia, Astindu, Lokatza, Zutik, Komite Internazionalistak, BEKE, Elkarlana,

Haurtxoa haurtzaindegia, Mendia Bizirik, EHNE eta Angiozaroko Batzarrak bat egin dute Bergara Aurrera taldearekin.

APARTHEID POLITIKOA

Testuarekin bat egin dutenek Bergara Aurrera plataformari dagokion ordezkariak politikoa aitortzea eskatu dute. Bergara Aurrerako hitzetan, "joan zen urteko udal hauteskundeetako putxerazoa demokrazia ezaren lehen atala izan zen, eta bigarrena, eta oraindik gordinagoa, udal berria ekai-

nean sortu zenetik gaur egun arte bizi duguna da. Bergaran benetako apartheid politikoa bizi dugu, Bergara Aurrerari dagozkion lau zinegotziok, eta gurekin batera 1.884 herritar inongo eskubide politiko barik gaude".

ESKUBIDE BERTINTASUNA

Joan zen urtetik hona herriko hainbat eragileekin harremanetan izan dira Bergara Aurrerakoak. Demokrazia eta eskubide berdintasunean oinarrituriko elkarbizitza aldarrikatzen dute: "Helburu honekin, zuzenean eskatu nahi diegu EAJ-EA koalizioa, Aralar eta Ezker Batua taldeetako ordezkariak beharrezkoak diren urratsak eman ditzaen Bergarako udala maiatzaren 25ean herritarrek hautestontzietan adierazitako borondatearen arabera osatu dadin. Gure arteko harremanak gure artean erabakitzea dagokigu".

Azken udal hauteskundeetan herritarrek adierazitakoa aldarrikatzen dute

LABUR

DYAk lehen sorospen eta sorosle ikastaroa emango du Bergaran astelehenera aurrera

Gipuzkoako DYAk antolatuta, lehen sorospen eta sorosle ikastaroa izango da astelehenera aurrera Bergarako Kultura Etxean. Ikastaroaren iraupena hiru astekoa da, maiatzaren 14a bitartean eta eskolak aste barruan izango dira, astelehenera egubakoitzera, 19:30etik 21:30era.

Matrikulak 60 euro balio du eta izenematea 943 46 46 22 telefonon egin daiteke. Plaza mugatuk dira.

San Joxepeko batzarra astelehenera eta diabetesaren gaineko hitzaldia eguaztenean

San Joxepeko elkarteak ohiko batzar nagusia egingo du astelehenera, hilaren 26an, erretiratuen egoitzan, 17:00etan. Besteak beste, 2003. urteko memoriaren onartzea, zuzendaritza batzordearen berritzea eta aurtengorako antolatutako egitasmoak izango dituzte aztergai. Elkarteak bazkide guztiei batzarrean parte hartzeko dei egiten diete.

Bestalde, eguaztenean, hilaren 28an, diabetesaren gaineko hitzaldia izango da erretiratuen egoitzan, 17:00etan. Arrasateko ICTEko kide bat izango da hizlaria.

Haur masaje ikastaroa Aranzadi Ikastolaren eta Haurtxoa haurtzaindegiaren eskutik

Aranzadi Ikastolak eta Haurtxoa haurtzaindegiak antolatuta, haur masaje ikastaroa izango da maiatzaren 5etik ekainaren 2ra bitartean. Nerea Mendizabal izango da irakaslea eta 0-1 urte bitarteko haurren gurasoei zuzenduta dago bereziki. Eskolak maiatzaren 5ean, 12an, 19an eta 26an eta ekainaren 2an izango dira, 17:00etatik 19:00etara.

Izenematea (80 euro) Haurtxoa haurtzaindegian (943 76 20 44) edo Aranzadi Ikastolan (943 76 90 71), apirilaren 30a baino lehen.



Abiadura moteltzeko bandak, bueltan

Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliagatik hainbat tokitan kentutako bandak berriro jartzen izan dira udal brigadako langileak egunotan. Zubietan (argazkian) eta Bolun, esaterako, lehen zirenak baino gutxiago izango dira aurrerantzean.

Idoia Iriarte Irureta

Dentista

Artekale 1 - 1C Bergara Tel.: 943 76 01 65

Odontologia orokorra •

• Asegurua: LAGUN-ARO

JAIK/ Adin guztietako herritarrei zuzendutako dantza ikastaroa antolatu dute

Jalgi Hadi Dantzara erromeria, ekainaren 12an

E.M.

Erromeria erraldoia izango da Bergaran ekainaren 12an, egun horretan Jalgi Hadi Dantzaren bigarren ekitaldia egingo baita herrian. Dantza soltea bultzatzea da Euskal Dantzarien Biltzarren egitasmoaren helburu nagusietako bat. Hori dela eta, dantza zale guztiei dei egiten zaie egun horretan erromerian parte hartzeko.

DANTZA IKASTAROA

Erromeriari begira, dantza ikastaroa antolatu dute ekainaren 11ra arte. Eskolak Aranzadi Ikastolan izango dira, eguazten eta egubakoitzetan 19:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 11:00etatik 12:00etara. Adin guztietako jendeari zuzenduta daude eta irakasleak Juantxo eta Janire Urbie-ta izango dira. Ikastaroa doanekoa da.

Izenematea kultura etxean egin daiteke, 943 77 91 59 zenbakian.



ARTXIBOA

Jalgi Hadi Dantzara erromeriaren lehenbiziko ekitaldia 2002. urtean izan zen.



Urteagako bizilagun baten protesta

Bergaratik Antzuolara joateko bidea, Urteagan, itxita dago oraindik. Urteaga 29ko bizilagunek beraien etxebizitzak utzi behar izan zituzten azaroan. Aste honetan, bertako bizilagun bat izan da kalean protesta egiten. Beste soluziorik ezean, bere etxera bueltatu behar izan duela adierazten zuen pankarta ibili da erakusten bere autoarekin, kalerik kale.

LABUR

Haurren Euskal Jaiaren 31. ekitaldia izango da Bergaran, maiatzaren 16an

Haurren Euskal Jaiaren 31. ekitaldia maiatzaren 16an ospatuko da. Ohikoa denez, gaztetxo mordoia etorriko da egun horretan Bergarara. Etxean, bazkaltzeko, haurrak jasotzeko gertu dauden herritarrek Kultura Etxera (943 77 91 60) deitu dezakete.

Bestalde, Xamatx dantza taldeak jakinarazi duenez, aurtengo Mendekoste jaietan ez du ohiko lepoko zapia aterako. Edozein modutan, talderen bat lan hori egiteko interesatuta egongo balitz, Xamatzeko kideak gertu daude laguntza emateko.

Debagoieneko Atzegi eguna ospatuko da Bergaran, datorren maiatzaren 15ean

Debagoieneko Atzegi eguna ospatuko da Bergaran maiatzaren 15ean. Bazkari herrikoa izango da Zabalotegin. Antolaketan laguntzeko gertu daudenek 943 76 52 39 (Karmele) zenbakira dei dezakete. Bestalde, *Arnasberritzeko ATZEGIZALE bila* kanpaina jarri dute abian. Atzegi Gipuzkoan adimen-urritasuna duten pertsonen familiek sortu zuten 1960an. Gaur egun 4.000 gipuzkoar dira Atzegizale eta elkartearen helburua da Atzegizale gehiago egitea. Kanpainak hilaren 30era arte iraungo du.

Justiziaren euskalduntzea aldarrikatzeko EHEren elkarretaratzea, bihar, epaitegian

Debagoieneko Euskal Herrian Euskaraz taldeak deituta, justiziaren euskalduntzea aldarrikatzeko elkarretaratzea izango da bihar, zapatua, Bergarako epaitegiaren aurrean, 12:00etan.

Euskal Herrian Euskaraz taldeak epaitegiko zeregina euskalduntzeko ahaleginetan jarraitzen du. Behin baino gehiagotan salatu dute euskaldunon eskubideak ez dituztela errespetatzen, bete-behar judizialak gaztelania hutsean egin behar izanagatik.

Euskal presoek aldeko elkarretaratzea astelehenean

E.M.

Bergarako Batasunak deituta, 40 lagun inguruk euskal preso politikoek aldeko elkarretaratzea egin zuten astelehen arratsaldean, San Martin plazan. Bertaratuak *Euskal presoak Euskal Herri* zioen pankarta erakutsi zuten.

DISPERTSIOA

Batasunak salatu duenez, euskal presoek kolektibotik zazpi lagun bakarrik daude Euskal Herriko espetxeetan. Debagoieneko 31 presoek dagokienez, bat bera ere ez dago gurean. Guztiak Espainia

zein Frantziako espetxeetan daude gaur egun. Batasuneko ordezkarien esanetan, "dispertsio egoera tamalgarria eta hain ondorio latzak uzten dituen politika anker honekin amaitu beharra dauka-gu".

ALBACETEKO ESPETXEA

Bestalde, Albaceteko espetxean euskal presoek bizi duten egoera ekarri dute gogora. Jadanik hila-beteko gose greba egin dute, tartean Txus Goikoetxea arrasatearrak. Beraien giza eskubideak eta bizi baldintzak errespetatzeko eskatzen dute.

Turista katalanak eta euskaldunak izan dira nagusi Aste Santuan

E.M.

Aste Santuko oporretan turista katalanak eta euskaldunak izan dira nagusi, Udaleko Turismo Bulegoak emandako datuen arabera. Bergarako Turismo Bulegoan 436 kontsulta jaso dituzte apirilaren 5etik 17ra bitartean eta horietatik 218 kontsulta Euskal Autonomi Erkidegoko jendearenak izan dira. Ohikoa denez, herritar dezentek jo du Aste Santuan Turismo Bulegora. Hain

zuzen ere, 105 kontsulta bergararrek egin dituzte. Herriko ondarea hobeto ezagutzeko herritar askok jotzen du Turismo Bulegora.

Bisitarien profilari dagokionez, gehienak bikote gazteak direla azaldu dute Turismo Bulego arduradunek.

IRAILAREN 30ERA ARTE ZABALIK

Udaleko Turismo Bulegoa irailaren 30era arte izango da zabalik, asteleheneetik zapatura

10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era. Domeka eta jai egunetan goizez zabalduko dute, 11:30etik 14:30era. Hala ere, ez dute domeka guztietan zabalduko. Esaterako, domekan, apirilaren 25ean, itxita izango da Turismo Bulegoa.

Turismo Bulegoak bisita gidatuak antolatzen ditu. Interesatuak 943 77 91 28 telefono zenbakira deitu dezakete argibide eske. Aurtan ere Nis enpresa arduratzen da zerbitzuaz.



Euskal presoek Euskal Herriatzearen alde egin zuten elkarretaratzea.

E.M.



SERAFIN ESNAOLARI ESKAINITAKO PLAZA

On Serafin Esnaola apaiza zenari eskainitako plaza inauguratu zuten apirilaren 4an, Pasaian. Bergaran ez ezik, Pasaian ere lan handia egin zuen Serafin Esnaolak, 25 urte eman baitzituen Trintxerpe auzoan lanean. Hain zuzen ere, auzo horretan, Arrandegi kalearen ondoan egin duten plaza berriari jarri diote Serafin Esnaola izena. Inaugurazio ekitaldian Pasaiaiko Udaleko ordezkariak izan ziren, eta, hain zuzen ere, Serafin Esnaolaren arreba batek utzi zuen agerian plaka.

ELORREGIKO GURUTZE GORRIKOAK, ESPAINIAKO TXAPELKETARA, CAMBRILSERA

Debagoieneko Gurutze Gorriko Egoitzak Euskal Autonomia Erkidegoa ordezkatu du Estatu mailako lehen sorospen lehiaketan. Elorregiko egoitzakoak garaile atera ziren apirilaren 4an Donostian jokaturako lehiaketan; banaka zein taldekako praktika probak izan zituzten, teorikoa ere bai, eta maiatzaren 15ean eta 16an Cambrilsen jokatu den Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela lortu zuten Debagoieneko ordezkariak. Elorregiko egoitzako taldea Jose Gallardo, Xabier Moreno, Estibaliz Gozalo, Miriam Conchas, Gorka Navajo eta Asier Martinezek osatzen dute. Lehen sorospenak ematen talde bikaina osatzen dutela erakutsi dute. Maiatzean erkidego guztietako irabazleak elkartuko dira Tarragonan. Han irabazten duen taldeak Europa mailako txapelketan hartu du parte, ekainean, Austrian.



50 URTE BERGARAN BIZI DIRELA OSPATZEN

Dagoeneko 50 urte bete dira Rodriguez-Blazquez familiakoak Avilako San Garcia de Ingelmos herritik Bergarara etorri zirenetik. Jesus eta Urbana gurasoekin etorri ziren sei anai-arrebak. Ordurako Sor Fernanda (koadroan), Urbanaren ahizpetako bat, Bergaran zegoen, Sierbetan, eta hark animatuta etorri ziren, 1954ko apirilaren 18an. Ia bizi guztia egin dute Bergaran, hemen ezkondu dira eta 13 seme-alaba izan dituzte. Gaur egun Salamancako Peña Aranda de Bracamonte herrian bizi den Fernanda Blazquez ere etortzekoa da gaur Txarrantxan egongo duten afarira. Zorionak!!!

MINGAINARITIRAKA



Katrin Bastarrika

KOH DENDAKOA

Diseinu Grafiko eta Maketazio ikasketak egin zituen Katrinek. Orain dela lau hilabete zabaldu zuen denda, Oihana Garitano-rekin batera. Oihana Arte Ederrak ikasitakoa da. Orain arte lagunak eta orain bazkideak ere badira euren negozio berrian.

Noiz zabaldu zenuten negozioa?

Gaur, justu, lau hilabete bete dira.

Bi bazkide zarete. Zelan animatu zineten?

Dauzkagun ikasketekin, pentsatu genuen konbinazio ona zela; gainera, biok geunden langabezian. Aurretik hainbat lantxo egin genituen elkarrekin, eta hortik sortu zen negozioa jartzeko ideia. Zer eratako lanak egiten dituzue?

Diseinuarekin lotutako edozein lan egiten dugu: logotipoak, liburuak, esku-orriak, katalogoak, kartelak, egutegiak, triptikoak... Enpresen irudi korporatiboa ere lantzen dugu.

Artea gustuko izango duzu, ezta? Ze arte mota?

Gurekin lotuta dagoena: minimalismoa; bai pinturan, bai argazkilaritzan. Gutzirekin asko esaten duen artea gustatzen zait, eta koloreak garrantzitsuagoak dira niretako, formak baino.

Zeure estiloa ere era horretakoa da?

Bai, saiatzen naiz. Dena irudi baten laburtzea, gauzak ahalik eta era sinpleenean azaltzea, horixe izaten da nire erronka.

Zure etxera sartu eta antzematen da diseinatzaile baten etxea dela? Zertan?

Nik uste dut baietz; nire logela, esaterako, Oihanaren margolanekin beteta dago. Joaten naizen tokira joaten naizela, esku-orri eta horrelako mordera ekartzen ditut, eta logelan dauzkat guztiak. Etxea nirea izango balitz, baina, gehiago antzemango litzateke.

Gustuko logotipo bat?

Iberdrolaren berria, Repsolena eta Endesarena.

Kolore bat?

Urdina.

Forma bat?

Zaila da horri erantzutea; biribila eta laukia, biak dira guztiz beharrezkoak.

Diseinuaz gain, ze beste zaletasun daukazu?

Ura, igeri egitea.

Zela definituko zenuke zeure burua?

Lanean, perfekziozalea; bestela, lagunena laguna naiz eta umorean, erradikal samarra.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Arrate Etxaniz

MEXIKO ETA GUATEMALA / 2003ko martxoan

Iazko martxoan, bikoteki-dearekin batera joan zen Arrate, Maien Ibilbidea izenekoa egitera. Hogeita sei eguneko bidaia egin zuten, eta maien herriez gain, Mexiko eta Guatemalako beste hainbat txoko ere bisitatu zituzten.

Hegazkina hartu eta Cancunera joan ziren lehenengo; toki turistikoa da Cancun, baina denbora laburra egin zuten hantxe. Berehala ekin zioten Maien Ibilbideari: Mexikoko Chichen-Itzak eta Palenque eta Guatemalako Tikal herriak osatzen dute ibilbide hori.

Chichen-Itzan hasi zuten ibilbidea, Mexikon. Arrateren esanetan, ikusgarriak dira hango hondakinak: "Piramideen antzerako izugarritzko eraikinak daude eta benetan ikusgarriak dira". Gainera, hondakin asko daude azaleratuta. Palenque eta Tikalen oraindik asko ei dago azaleratzeko. Tenpluak, piramideak, frontoia antzerakoak... Maien hainbat eraikinen hondakinak ikusteko aukera izan zuten ibilbide horretan.

Bide batez, baina, inguru haietako beste hainbat toki bisitatu zituzten. "Palenque, esaterako, oihauean dago eta oso paraje ederra da", azaldu digu Arratek. Bi ur-jauzitan egon ziren, Agua Azul eta Misol-ha ur-jauzietan, eta bainu bat ere hartu zuten.



"Betidanik izan dudan ametsa bete ahal izan nuen: sumendi batera igotzea"

"Piramideen antzerako izugarritzko eraikinak daude Maien Ibilbidean"

Baina, esan bezala, Mexiko eta Guatemalako bestelako tokiak bisitatzeko aukera ere izan zuten. Mexikon, Txiapas lurraldean egon ziren, San Cristobal de las Casasen, hain zuzen ere. "Oso oroitzapen onak ditut: adibidez, ekitaldi politiko baten egon ginen eta hango jendearekin harremana izateko aukera izan genuen. Irakeko bonbardaketen aurka ekitaldia izan zen".

Arrateren esanetan, aipatzekoa da autobus zerbitzua zelako ona den Mexikon. Hara joateko asmoa duenak, hortaz, kontuan har dezake aipamen hori.

Guatemala, berriz, herrialde pobregoa ei da. Quetzaltenango hiria bisitatu zuten eta asko gustatu zitzairen. Handik, gainera, hainbat irteera egin zituzten; esaterako, Atilan lakuan eta Pacaya sumendian egon ziren. "Sumendi hori jardunean dago; gidari batekin joan ginen hara. Betidanik izan dudan ametsa bete ahal izan nuen: sumendi batera igotzea, alegia".

Hogeita sei egunean denetik ikusi eta egin zuten. Azkeneko sei egunak, baina, atsedean hartzeko aprobetxatu zituzten. Carmengo hondartzan egon ziren, horrenbeste egun hara eta hona ibili eta gero.

AINTZANE IRIZAR



Arrate eta Pirmin Tikaleko hiri maian, piramide baten aurrean.

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

MARATOIA/Itsaso Hileko lasterketa

Joxu Arana eta Asier Garcia Jordanian izan dira Itsaso Hileko Maratoian

IRATI AGIRREAZALDEGI

Hamaikagarren edizioa izan du aurten Itsaso Hileko Maratoiak. Jordaniako lurretan jokatu den lasterketa honetan bi bergararrek hartu dute parte: Joxu Aranak ultramaratoian (50 km) jardun du eta Asier Garciak, berriz, maratoi erdian (21 km).

Aste Santuko oportetan euren bi zaletasun elkartu dituzte bi bergarar hauek: bidaiatzea eta kirola. Izan ere, bi astez Siria eta Jordaniari ibili ostean, bertan Itsaso Hileko Maratoian hartu dute parte.

Joxu Aranak Donostiako Maratoira joateko asmoa zuen, baina lesio bat zela medio ezin izan zuen parte hartu. "Gero maratoiren bat non egin nezakeen begira hasi nintzen. Lehendik pentsatua nuen noizbait beste herrialderen batean lasterketaren bat egitea, eta Parisen eta Londresen eta bazeuden arren, guk Jordaniara joan eta oporrak eta kirola uztartzea erabaki genuen", esan digu Joxuk.

IBILBIDEA ALDAPAN BEHERA

Maratoi honetan maila ugari daude. Joxu Aranak ultramaratoia egin du, 50 kilometroko lasterketa, eta Asier Garciak, berriz, maratoi erdia (21 km).

Joxuk lasterketaren edo ibilbidearen berezitasunak zein diren aipatu dizkigu: "Maratoi hau ez da hiri baten barruan egiten, Jordaniako hiriburutik, Ammandik Itsaso Hilerari bitarteko ibilbide batean baizik. Itsaso Hila munduko punturik baxuena (400 m) izanik, lasterketa guztia aldapan behera egin



Joxu Aranak lau orduan amaitu zuen ultramaratoia eta Asier Garciak ordubete eta berrogeita hamabi minutuan maratoi erdia.

*Maratoia
amaieran paisaia
nahiko desertikoa
da, ibilbide
gehienean bezala*

behar izan genuen. Bestalde, maratoia azken zatia nahiko basamortu itxurakoa da, ia lasterketako paisaia gehiena bezalaxe".

HAIZEA ETSARIK HANDIENA

Asierren ibilbidea laburragoa izan zen: "Nik bi zuzengunetan egin behar izan nuen korrika. lehenengoa zortzi kilometrokoa, gero beste horrenbeste 90 graduko bihurtu ostean eta azkenik beste hiru edo lau zati aldapatsuan", esan digu Asierrek.

Hala ere, distantzia ezberdina izan arren, biek traba bera izan zuten: basamortuko haize gogorra.

"Ibilbidea basamortuan barrena izanik harea eta lurra gainera etortzen zitzaigun eta amaie-

*"Bide bazterrean
apenas zegoen
jenderik animatzen,
baina poliziak eta
boluntarioak asko"*

ran lokaztuta iritsi ginen helmugara. Gainera, haizea kontrari delako korrika egitea beti izaten da zailagoa", esan digute Asierrek eta Joxuk.

POLIZIA LASTERKETA ZAINTZEN

Lasterketako ibilbidean apenas zegoen jenderik korrikalariei animuak emateko. "Bidegurutzetan boluntarioak zeuden, ibilbidearen nondik norakoak azaltzeko. Bestalde, 500 metroan behin poliziaren bat zegoen. Izan ere, polizia turistikoa dago Jordaniari eta hainbat herrialdeetako korrikalariak egonik beraien betebeharra zen lasterketa babestea. Hauetaz gain, korrikalarion lagunak edo senideak baino ez zeuden", esan digute biek.

Bergararrak ez ziren izan proban parte hartu zuten euskaldun bakarrak: "42 kilometroko lasterketan Beasaingo bat izan zen helmugara iristen lehen beterranoa. Bestalde, gure Legazpiko lagun bat ere bazegoen eta beste bost gehiago-edo izango ziren".

Atzeritik joandako gehienak Alemaniakoak omen ziren, baina bertako, Jordaniako partaideak ere asko izan ziren. Hangen baliabideak oso urriak omen dira ekipamendu aldetik, eta bitxikeria modura kontatu digute izan zela lasterketa zapatekin edo oinutsik egin zuenik.

AURRERANTZEAN AGIAN BESTE BAT

Honen aurretik Joxuk behin egin zuen Donostiako Maratoia eta baita Behobia-Donostia lasterketa ere. Asierrek azken honetan eta Azkoitia-Azpeitia proban hartu du parte.

Hemendik aurrera baliteke beste noizbait ere parte hartzea horrelako lasterketaren baten. "Kirola aitzakiaz hartuta oportunitate igarotzeko aukera eman digu proba honek, eta noizbait horrelako beste aukeraren bat suertatzen bazaigu aprobetxatu egingo dugula uste dugu".

Eskola arteko VII. Piraguismo Txapelketa zapatuan Bideberrin

I.A.

Zaturako, hilaren 24rako, Bergarako eskola arteko VII. Piraguismo Txapelketa antolatu dute Beti-Busti taldeak eta Udaleko Kirol Zerbitzuak. Gipuzkoako lau klubetako piraguitsek jardungo dute.

Karmelo Iturrosperen omenez egingo diren eskola arteko piraguismo probak 16:00etan hasiko dira, eta piraguitsek Bideberrin kokatutako ibilbidean lehiatu beharko dute elkarrekin.

Probak eslatom erakoak izango dira. Hau da, piraguetan eta

kanoekin ibilbidean ipinitako atea zeharkatu beharko dituzte, eta bidea ahalik eta denborarik laburrenean amaitzen duenak irabaziko du.

GAZTE ETA ALEBIN MAILETAKOAK

Guztira, 50 partaide izango dira zapatuan gutxi gorabehera, guztiak Gipuzkoako lau klubetakoak: Atletico San Sebastian (Donostia), Santiagotarrak (Irun), Koxtape (Pasaia) eta Beti-Busti (Bergara).

Gazte eta alebin mailetako neskak eta mutilak ibiliko dira Bergarako uretan nor baino nor gehiago arraunei eragiten.

Banakako piraguetan neskak eta mutilak eta kanoetan, berriz, banaka zein binaka mutilak besterik ez. Kanoetan belauniko joan behar izaten dute kirolariek, eta arraun bakarrarekin.

HERRIKO LAU PIRAGUISTA

Herriko Beti-Busti taldeak ere izango ditu ordezkariak txapelketan. Gazte mailakoak dira guztiak: Iratiz Arizabaleta, Mikel Alustiza, Imanol Berroia eta Beñat Sanchez, hain zuzen ere.

Aurtengo denboraldian lau probatan hartu dute parte jadanik, eta sailkapen orokorrean erdialdean daude.



Eslatom erako probetan jardungo dute piraguitsek Bergarako uretan.

Bergara Hiria Pilota Txapelketaren IX. edizioa abian da apirilaren 13az geroztik

I.A.

Apirilaren 13an hasi zen Bergara Hiria Pilota Txapelketa. Nagusien mailan hamar bikotek jardungo dute eta 22 urtez azpikoetan zortzi. Tartean bi bergarar egongo dira: Gutierrez eta Muguruza. Finalak maiatzaren 31n jokatuko dira.

Bergara Hiria Txapelketan diharduten hainbat jokalarik jadanik eman dituzte lehen pausoak Udal Pilotalekuan.

Apirilaren 13an final-laurdenen atariko bi partidu jokatuko ziren, eta norgehiagoka hauen ostean, nagusien mailan parte hartu behar duten 10 bikoteetatik bi kanpoan geratu dira.

Matute IV.ak eta Gomezek eta Uberak eta Oteizak galdu egin zituzten partiduak Aranzeta eta Jauregiren eta Lasa eta Mendizabalaren aurka hurrenez hurren. Beraz, azken bi bikote horiek egin dute aurrera.

FINAL-LAUDENAK

Martitzenean jokatuko ziren final-laurdenetako lehen partiduak.



Muguruza eta Gutierrez pilotari bergararrek txapelketan jokatuko dute.

Nagusietan Aranzetak eta Jauregik irabazi zuten eta 22 urtez azpikoetan Olazabalek eta Betelek. Beraz, finalerdietarako txartela lortu dute. Datorren martitzenean beste bi partidu izango dira jokoan, 19:30ean. Dominguez eta Altuna Sorarrain eta Gutie-

rrezen kontra nagusietan eta 22 urtez beherakoetan Aspe eta Errarte Azpiazu eta Azpiazuren aurka.

Lehen partiduen ostean, Reyes Azkoitia Bergara Kirol Elkarteke pilota saileko ardura-dunak esan digunez, Olazabalek

joko polita erakutsi zuen batez ere airez, eta baita Aranzetak eta Jauregik osatutako bikoteak ere.

BI BERGARAR TXAPELKETAN

Txapelketan bi bergararrek ere hartuko dute parte, Muguruza aurrelariak eta Gutierrez atzelariak, nahiz eta elkarrekin bikotea ez osatu. Gutierrezek datorren martitzenean, apirilaren 27an, jokatuko du estreinako partidua eta Muguruzak, berriz, maiatzaren 11n.

Txapelketak apirilean eta maiatzean aurrera egin ostean, finala maiatzaren 31n jokatuko da.

PROFESIONALEN PARTIDUAK BIHAR

Bestalde, datorren zapatuan pilotari profesionalen partidua izango da Udal Pilotalekuan bertan, 17:00etan. Frontis enpresak Gipuzkoan antolatzen duen lehenen jaialdia da. Artekariak ere izango dira bertan, beraz, apustuak egiteko aukera izango da.

Barberito VI.a-Gorriti bikoteak Ariznabarreta-Mendiaren aurka jardungo du lehenengo, eta Alustiza-Errandonea eta Badiola II.a-Armentariz elkarren kontra ondoren.

ESKUBALOIA

Gazte mailako mutilak Urrietaren aurka zapatuan

Eskubaloiko partidu bakarra izango da asteburu honetan Bergaran. Bihar, zapatua, 16.30ean gazte mailako mutilak Urrietako taldearen aurka jokatuko dute Labegaraietan. Kopan oraingoz jokatutako partidu bakarra irabazi egin zuten Josetxo Muniategiren mutilak. Urrietaren aurkakoa ez omen da partidu zaila, baina irabazi nahi bada gogor jokatuko beharko dute.

LABEGARAIETA

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

18:00: Pirulotarrak-K. Musakola Ganbara
19:30: Ganbara-P.D.S. Pirulotarrak

DOMEKAN, KOPA

10:00: S.D.T.N.T.-Verveinir. Errotagain
11:00: Errotagain-Bedarreta. Irubide
16:00: T. Añiketan-T.M.T. Pirulotarrak
17:00: Torrekua-Pirulotarrak. T.M.T.
19:00: K. Piperrak-A Ze Flaxa. Fak
20:00: Fak-Mongatxurra. A Ze Flaxa

Kadeteek Antzuolaren aurkako derbia jokatuko dute domekan

I.A.

Guztira, bost izango dira asteburu honetan etxean jokatuko duten taldeak. Zapatuan bi partidu izango dira eta domekan gainontzeko hirurak. Norghegiagoka guztiak Ipintzan jokatuko dira.

Asteburuan lehenengo jokatuko dutenak ohorezko mailako mutil gazteak dira. Norghegiagoka zapatuan izango da, 16:30ean, eta Euskalduna taldea izango du aurrez aurre Bergarakoek.

Zapatuan jokatuko duen beste ekipoa nesken hamaikakoa izango da. Hauek 18:30ean hasiko dute partidua, Ipintzan, eta Legazpiko Ilintxa taldearen aurka jokatuko dute.

Domekan gainontzeko hiru taldeek jokatuko dute. Goizean, 10:00etan, Bergara eta Antzuolaren arteko derbia jokatuko dute bigarren mailako kadeteek.

Hauen ostean, 11:30ean, lehen mailako kadeteek Herreraren aurkako partidua izango dute.

Jardunaldia amaitzeko etxean jokatuko duen azken taldea nesken zortzikoa da. Altzakoak izango dituzte aurrez aurre eta partidua 16:30ean hasiko da.

PREFERENTE MAILAKOAK OÑATIN

Gainontzeko taldeek etxetik kanpo jokatuko badute ere, preferente mailakoak ez dira oso urrutira joango. Oñatiko Azkoagain zelaian jardungo dute Aloña Mendikoen aurka bihar, zapatua, 16:30ean.



Bigarren mailako kadeteek Ipintzan jokatuko dute Antzuolakoan kontra.

FOTOKIROLA



Madura 94 taldekoak txapelketan izan dira Laudioko txapelketan

Aste Santuan bi futbol txapelketatan hartu dute parte Madurako jokalariek gaztetxoek. Madura 93 eta 94 ekipoez Laudioko IV. torneoan jardun dute. Zortziko taldeetan lehiatu dira eta bertan Madura 94 ekipoa txapelketan izan da etxeko taldearen aurka finala penalti jaurtiketan irabazi ostean. Kepa Zabaleta atezainak seitik lau penalti gelditu zituen. Gainera, Aitor de Benito Bergarako futbolariak jokalaririk onenaren saria jaso zuen txapelketan.

Bestalde, aurrez sekula kanpoko txapelketetan jokatuko gabeko Madura 95 ekipoa estreinako izan zuen Gasteizen, Aurrera de Vitoria torneoan. Bost laguneko taldeak finalera iristea lortu bazuen ere, lehian lehen aldia izanik, ez zuen txapelketa irabazterik izan. Finala Gasteizko Luis Dorado taldearen kontra jokatuko zuten bergararrek eta azken unera arte ez zen erabaki txapelketan zein izango zen, penaltietan galdu baitzuten Madurakoek torneoko azken partidua. /I.A.



Argazkian, Bidaia musika taldeko kideak. Ohian diskoa aurkeztuko dute gaur Bergaran.

ARTXIBOÀ

MUSIKA/ Iparraldeko taldeak 'Oihan' bere lehenbiziko diskoa aurkeztuko du

Bidaia taldearen emanaldia gaur gauean Novedadesen

EDU MENDIBIL

Iparraldea bertan programaren barruan, Bidaia musika taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Novedades aretoan, 22:30ean. Mixel Ducau eta Caroline Phillips ezagunen talde berriak lehenbiziko diskoko kantuak eskainiko ditu gaur.

Bidaia taldeak *Oihan* izenburuko diskoa aurkeztuko du gaurko emanaldian. Bost urtez elkarrekin abestu ondoren, Caroline Phillips eta Mixel Ducau Bidaia taldea sortu zuten 2000. urtean, Ritxi Salaberria eta Javi Area musikarien laguntzarekin. *Oihan* diskoa da taldearen lehenbiziko lana, 2002an Erreterian grabatutakoa. Abesti eta melodia tradizionalei utsiz, mundu zabaleko folkloreei tartea egin

die Bidaia taldeak. Alboka, ttuntuna eta txirula instrumentu modernoagoekin tartekatzen dira, hala nola gitarra akustikoa, pianoa eta saxo sopranoarekin. Era berean, kaxoi andaluzar, Marokoko darbuka eta Okzitaniako zanfoñak ere lekua daukate Bidaia taldearen abestietan.

TARTEKIAXXX

Esan bezala, Caroline Phillips (ahotsa eta zanfoña), Mixel Ducau (ahotsa, gitarra, alboka, flautak), Ritxi

Salaberria (kontrabaxua) eta Javi Area (perkusionak) osatzen dute Bidaia. Mixel Ducau Errobi taldeko sortzaileetako bat izan zen, 1975ean, eta Caroline Phillips ere ibilbide luzea egin du: kaliforniarra jaiotzez, Parisen egin zituen kantu ikasketak, eta 1988an Mixel Ducau ezagutu ondoren, harekin lan egin izan du ordutik hona. Bidaia taldearen lehenbiziko lanak harrera ona izan du.

'IPARRALDEA BERTAN'

Debagoieneko Mankomunitatea eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundearen eskutik, *Iparraldea bertan* programak Debagoieneko eta Iparraldeko kulturek elkar ezagutzeko asmoa dauka. Maiatzaren 1era bitartean hainbat ekitaldi izango dira. Gaurko emanaldirako sarrerak bost eurotan salgai jarriko dituzte Novedadesko leihatilan.

Abesti eta melodia tradizionalei utsiz, mundu zabaleko folkloreei tartea egin die Bidaia taldeak

Gaztetxoei zuzendutako 'Haur poesia aretoa' Kultura Etxean

E.M.

Udal Liburutegiak antolatuta, Galtzagorri taldearen *Haur poesia aretoa* izenburuko erakusketa ikusgai dago Kultura Etxean. Aste honetan bertan herriko hainbat gaztetxo igaro dira aipatutako erakusketa ikustera. Hain zuzen ere, bisita gidatuak antolatu dituzte 8-10 urte bitarteko ikasleendako. Gaztetxoen artean irakurtzeko zaletasuna sus-

tatzea da erakusketaren helburu nagusia. Ane Berasategi bergararra izan da gaztetxoen bisitak gidatu dituen.

Erakusketa apirilaren 30era arte izango da ikusgai, aste barruan 18:00etatik 21:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Bestalde, gaur Liburuaren Eguna dela eta, Udal Liburutegiak San Martin plazan eskainiko du zerbitzua, 10:00etatik 21:00etara.



LEIRE KORTABARRIA

Gaztetxoen artean irakurtzeko zaletasuna pizteko ekitaldiak izan dira astean zehar.



Durangaldeko herejeak mintzagai

Iñaki Bazan EHUko historia irakasleak *Los herejes de Durango: mito y realidad histórica* izenburuko hitzaldia egin zuen martitzenean Miguel Altuna aretoan, Udal Agiritegiak antolatutako *Bergara, historia topagunia* hitzaldi sortaren barruan.

Martitzenean 20 lagun inguru elkartu ziren Bazanen hitzaldia jarraitzeko. XV. mendearen hasieran Durangaldean sortutako foku heretikoa aztergai izan zuen hizlariak.

NATUR HOUSE


- Dieta pertsonalizatuak
- Kontsultak doan

Leire Perez Sampedro

Biologia Zientzietan lizentziaduna
Dietetika eta Nutrizioan espezialista

Simon Arrieta 3 • Tel.: 943 76 48 56 • BERGARA



NATURHOUSE

Nutrizioa eta Dietetika



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 17. alia

IEPA LAGUNOK!

Zelako ondo ibilli naizen Aste Santuan! Eta zuek zer moduz pasatu ditzuzue oporrak? Ondo ezta? Ni berriz lanerako prest etorri naiz, zuek ondo pasatzeko hainbat joku eta ariketarekin. Ia zuen gustokuak diren!!



URREZKO ARAUAK

- Futbolian jokatu dabe.
- Gorrixa edo urdiña aukeratu zeinke.
- ~~Futbolian jolastu dabe.~~
- ~~Gorrixa edo urdiña aukeratu leikedozu.~~



URTXINTXAREN JOKUA

- Joku hau egitteko gutxienez hiru pertsona bihar dira

Urtxintxaren jokua da ezkuta ezazu eskua bestela jotzen bazaitu muxu eman beharko duzu.



1.- Jokalari danak borobillian jarriko dira eskuak horrela ditzuztela: eskumako eskua gure eskuman dagoen pertsonaren eskuaren gainean eta ezkerreko eskua, gure ezkerrean dagoen pertsonaren eskuaren azpian.

2.- Hastiareko kantarekin batera, jokalaria batek eskumako eskuarekin bere ezkerrean dagoen lagunaren eskumako eskua joko dau. Abestixaren erritmua jarraituz, jokalaria danak banan-banan ezkerrean dauken jokalarixaren eskua joko dabe.



3.- Azkeneko berbaren (.....DUZU) azkeneko silabara (-ZU) heltzerakuan, jotzeko txanda egokitu jakon jokalarixaren ezkerrean dagoena eskua kentzen saiatuko da, eta eskua garaiz kentzia lortzen badau, eskuimakuak patxo bat emon bihar-ko dotsa. Eskuimako lagunak ezkerrearen eskua jo ezkerreko jokalarixak patxo bat emon bihar-ko dotsa.

HOROSKOPUA



capicornio

Egun hauetan zorte ona zure alde izango dozu. Errege-erregiña baziña moduan zainduko zaittue. Aprobetxate egizu!!



leo

Zuk beti gogoko eduki dozun bidaia egin zeinke. Kontu izan bidaia horretarako aukeratzeko dozun lagunarekin!!



cancer

Kontuz egiten dozunarekin, zure gertukoren batek zure gertukoren batek okerkerixetan harrapa ahal zaittu eta.



aries

Ez eixozu buruari horrenbeste buelta emon, buruko min galantarekin bukatu zeinke eta.



libra

Ikasi egizu lagun danekin jolasten. Emoten dau agintia baziñu moduan portatzen zarela.



piscis

Uste ez dozun txokoren batian aspaldian osabak emondako paga aurkitu zeinke.



virgo

Kontuz kale bazterretako putzuekin, jausi eta ipurdia busti zeinke eta!!



geminis

Ez egizu horrenbeste gezur esan, zuri be Pinotxori moduan sudurra luzatu leikizu eta!!



aquarius

Goguan ditzuzun gozoki danak jango baziñuz, ipurdia borobil-borobilla jarriko litzakizu.



scorpio

Saiatu zaittez berriketa gutxiago egiten, papagaio batek baiño berba gehixago egiten dozu eta.



sagittario

Egun hauetako batian lotsa handixa emoten dotsun zerbait egittia tokatu leikizu. Animo!!



tauro

Zu bai neska mutil geldua, barraskillo batek be harrapatuko zaittu.

AURREKO ASTEKO IRABAZLIA

- Aurreko asteko erantzun zuzenak

- NEIKE
- GIÑUAN
- GONTSAN
- GAITTUE
- DOTSA
- NITTUAN

- NOTSAN
- ZAITTU
- ZITTUAN
- BALITZAT
- BALITZAKUE



ANDONI DUKUN
10 urte
San Martin
Ikastetxekoa

E, TXO!

**ATZERRIKO UNIBERTSITATE
ETA ZENTROETARAKO BEKAK**

Alfonso Martin Escudero fundazioak 2004/2005 ikasturterako atzerriko unibertsitate edo ikerketa zentroetan onartuta dauden ikasleendako 12 beka emango ditu. Eskatzaileak Espainiako unibertsitatearen batean goi mailako titulua dutenak izango dira. Eskaera aurkezteko azken eguna apirilaren 30a da. Informazio gehiago nahi izanez gero www.fundame.org webgunera jo dezakete interesatuek.

**GAZTEAK EZ DIRA FIDATZEN
PRESERBATIBOekin**

Duela gutxi 14 eta 40 urte arteko 2.000 laguni —%75 emakumeak— egindako inkesta baten emaitzen arabera, Espainian gazteek ezagutzen dituzte haurdunaldia ekiditeko moduak, baina ez dituzte erabiltzen. Gazteen %70 sexu-harremanak izatean preserbatiboa hautsiko zaien beldur dira, eta bat-bateko harremanak dira prebentzio-metodo eraginkorra erabiltzeko eragozpen nagusia.

**IRUNGO JAIETAKO KARTEL
LEHIAKETA**

Irungo Udalak herriko jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Teknika librean egindako lanek honako testua izan beharko dute: *San Pedro eta San Martzial jaiak/Fiestas de San Pedro y San Marcial, Ekaina-Junio*. Lanak Irungo Udalera bidali beharko dira apirilaren 30a baino lehen. Informazioa nahi izanez gero deitu 943 64 92 39 telefonora deitu edo bidali mezu bat helbide honetara: cultura@irun.org.

GUREGAIK/ 'EUSKAL GAZTERIA LANKIDE' PROGRAMA

Udan Hirugarren Munduan laguntzen

IRATI AGIRREAZALDEGI

Hirugarren Munduari laguntzeko Euskal gazteria lankide programa antolatzen du urtero Eusko Jaurlaritzak. Aurten egitasmoan parte hartzeko aurreinskripzioa apirilaren 26a baino lehen egin beharko da.

Programaren helburua da Euskadiko gazteen artean elkartasunaren balioa sendotzea eta garapen ekintzen inguruko sentsibilizazioa sortzea. Hain zuzen ere, Amerikan, Asian eta Afrikan egiten dira ekintzak.


Guztira, 20 eta 30 urte arteko 100 gaztek parte hartuko dute uztailan hasi eta hiru hilabetez iraungo duten ekintzetan.

Eusko Jaurlaritzak ordaintzen ditu bidaia, bisatua, tasa, istripu poliza edo gaixotasunek sortzen dituzten gastuak. Gainera, hark egiten du hartzailearen eta gobernuz kanpoko elkartearen arteko bitartekaritza lana.

AURTENGO DEIALDIA

Aurten programan parte hartu nahi dutenendako apirilaren 26a izango da aurreinskripzioa egiteko azken eguna.

Eskaerak egiteko edo informazioa jasotzeko Jaurlaritzaren Kultura Sailak lurralde historikoetan dituen edozein ordezkari-tzatar jo ahal izango dute interesatuek: Gasteizen Donostia kalean, Bilbon Gran Vian eta Donostian Andia kalean.



Amerikan, Asian eta Afrikan garatuko dira programa honetako ekintzak.

LOTSABARIK/ Aritz Alustiza

"Gustura jakingo nuke nola ligatzen den"

IRATI AGIRREAZALDEGI

Kostatu zaigu Aritz Alustiza elkarrizketa egiteko konbentzitzea, baina azkenean etorri da guregana eta aurpegiaren ohikoa duen irribarrearekin erantzun dizkie gure galdera guztiei.

• **Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?**

Herria pizteko gazteendako ekintzak bultzatuko nituzke.

• **Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?**

Ez daukat ezer ere.

• **Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?**

Asko dira gorrotagarriak,

baina bat esatekotan Maria Teresa Camposen *Día a día*. Gustukoena, berriz, *Bertatik bertara*.

• **Pertsonaia higuinarriena? Eta gustukoena?**

Higuinarrak, adibidez, Bush eta Aznar. Bestalde, gustuko Anjel Alkain dut, antzerkia oso ondo egiten duelako eta barre eragiten didalako.

• **Zerk amorratzen zaitu?**

Politikoez, gezurrak esaten gu engainatzen saiatzen direlako.

• **Zer estimatzen duzu bestengan?**

Niri konfiantza ematea.

• **Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**

Bizitza bera disfrutatzeari, momentua bizitzeari, alegia.

• **Zure bertute bat? Eta akats bat?**

Oso puntuala naizela da nire bertutea; akatsa, berriz, ikasketetan ez naizela hain ona.

• **Zelan ligatzen duzue gazteok?**

Gustura jakingo nuke nik hori.

• **Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?**

Ni bezalakoa, alaia eta saltsero xamarra.

• **Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?**

Konpainia onean izanez gero edozein tokitara, Mexikora, adibidez.

• **Etorkizunerako amets bat?**

Orain bezala jarraitzea, osasun onean eta umoretsu.



ADINA: 19 urte • **IKASKETAK:** Produktu mekanikoen garapena • **ZALETASUNAK:** Musika • **LIBURU BAT:** 'Ehun metro' • **FILM BAT:** 'American pie'
• **MUSIKA TALDEA:** Fermin Muguruza • **KIROL TALDEA:** Realá

TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Alvarez

ESAN ZENIDANEAN
LOGELA KOLORE ILUNAZ
MARGOTU BEHAR ZENUELA ...
... EZ NUEN MALU
ESPERO!!

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Bi atari hauek kale berean daude. Non?

BERGARAROSPETSUAK

Bonifazio Laskurain (eta 2)

KOLDO PEREIRA

Urte batzuk geroago, 1931n, Julian Etxaniz silbotea jotzeko prestatu ondoren, lau jolerentzako lehiaketa baten hartu zuten parte Donostian. Emaizta Bergara eta Errenteria artean banatutako lehen saria izan zen. Garaipen biribila eta entzutetsua izan zen hura, Errenteriako banda oso ospetsua zelako eta haren beldur zirelako. 1950. urtean, Justino hilda zegoela eta Boni lehen txistulari, Joseba Laborda bigarren txistulari, Julian Etxaniz silbote jole eta Matias Azkarate atabal jole zirenean, berriz eskuratu zuten lehen saria.

Txistularien Elkarteak Ohorezko Lehendakari izendatu zuen Laskurain 1958an. Hiru urte geroago, Boni Luis Urteaga Lehiaketara aurkeztu zen Txistularia-Ertillari zortzikoarekin, eta bigarren saria irabazi zuen. 1962ko azaroaren 26an omenaldia egin zitzaion, Bergaran, lehen txistulari eta Elkarteak Ohorezko Lehendakari honi. San Pedron izandako mezaren ostean, jaialdia ospatu zen San Martin Agirre plazan. Bonifazio Laskurain 1978ko urriaren 9an hil zen, Bergaran.

1962ko azaroaren 26an omenaldia egin zioten Bonifazio Laskuraini, Bergaran



ARTXIBOA

Boni Laskurain pasealekua.

GALDEDEBALDE

1.

Nor da Jalgi Hadi Dantzara erromeriaren bultzatzailea?

- A/ Xamatx.
- B/ Euskal Dantzarien Biltzara.
- C/ Oskorri

2.

Zein da Bidaia taldeak kaleratutako diskoaren izenburua?

- A/ Eguzki berritan.
- B/ Oihan.
- C/ Magalean.

3.

Non jokatu da Itsaso Hileko maratoiaren 11. ekitaldia?

- A/ Turkian.
- B/ Sirian.
- C/ Jordanian.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ITZIAR ZABALETArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Itziar! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Moyua-Zuloaga jauregia (Rocaverde Markesa) / Galde debalde: 1-A, 2-C, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Bonka kafea

Ehoa, naturala edo nahasketa, 250 g.

1,17 €

195 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



EDEL
TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

DEBA
GARAIA

ETXE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behe
943 76 21 80 / 943 76 06 37



BERGARA
Irantzu Casanellas
Apirilaren 22an, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Beñat Landa
Apirilaren 11n, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Oihana Laskurain
Apirilaren 25ean, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mikel Zubizarreta
Apirilaren 23an, 4 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
bereziki Garazi arreba.



BERGARA
Leire Arietaleanizbeaskoa
Apirilaren 19an, 2 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
bereziki ahizpa Mireia.



ANTZUOLA
Ainhoa Mujika
Apirilaren 19an, 16 urte.
Urte askotarako!
Amantia.



ANTZUOLA
Ainhoa Garmendia
Apirilaren 19an, 16 urte.
Zorionak! Zuk badakizu
zein.



BERGARA
Andoni Kortabarria
Apirilaren 24an, 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Cheyenne Valor
Apirilaren 25ean, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, bereziki Kelly.



BERGARA
Garbiñe Ibabe
Apirilaren 26an, 36 urte.
Urte askotarako!
Loiben partez.




BERGARA
Garazi Agirrezabal
Apirilaren 26an, 8 urte.
Zorionak! Jone, Aitor,
aitatxo eta amatxo.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia,
asteleheneretan 17:00etatik
19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua



BERGARA
Itziar Morillas
Apirilaren 24an.
Zorionak! Ahizpen partez,
Leire eta Olatz.



BERGARA
Maria Elgoro
Apirilaren 23an.
Zorionak! amama, aitiba
eta Eli.



ELGETA
Ainara Aranzeta
Apirilaren 24an, 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK

EGUREN

Iraila 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).

943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

ANA MOZOS

San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

Barrenkalea 22. 687 73 75 67

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko apirilaren 23a / 198. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Ibarre nekazari turismo baserrian lau logela gehiago egokitu dituzte

AINZANE IRIZAR

Lau logela berri egokitu dituzte Ibarre nekazari turismo baserrian. Atzo, eguena, iluntzean egin zuten logela berrien inaugurazio ekitaldia. Hantxe izan ziren, besteak beste, herriko eta inguruko enpresetako ordezkariak eta hainbat herritar.

Zortzi logela bikoitz izango ditu aurrerantzean Ibarre nekazari turismo baserriak; hots, hamasei lagunendako tokia.

Antzuolan, ostatu hartzeko aukera eskaintzen duen toki bakarra da baserri hori. Orain dela zortzi urte zabaldu zituen ateak Ibarre, lau logelarekin. Baserria berri beharra zuten, eta bide batez, negozio berri honi ekitea erabaki zuten Pilar Belastegik eta bere familiak.

Azken baten, baserriarrendako aukera berri bat da nekazari turismoa. Lo egiteko tokiaz gain, gosaria eta afaria ere ematen dute Ibarren.

BEZERO GEHIENAK, LANGILEAK

Urte osoan zehar izaten dituzte bezeroak Ibarren. Horietako gehienak herriko eta ingurueta-



Aurrerantzean, hamasei lagunendako tokia izango du Ibarre baserriak.

ko enpresetara etortzen diren kanpoko langileak izaten dira; Frantziatik eta Alemaniatik etortzen dira, batik bat.

Dena dela, Aste Santuan eta udan turistak ere etortzen dira. Pasa berri den Aste Santuko oporraldian, esaterako, beteta izan dituzte logela guztiak. Euskal

Antzuolan, ostatu hartzeko aukera eskaintzen duen toki bakarra da Ibarre baserria

Herriko, Madrilgo eta Kataluniako bezeroak izan dituzte, baina hainbat italiar eta ingeles ezetz esan behar izan diote, tokirik ez zutelako.

Hemendik aurrera, baina, arazo gutxiago izango dute Ibarrekoek, lau logela berri izango dituzte eta.

HIRIGINTZA

Kalegoi eta Sagasti kaleak lotu dituzte

Txorikua etxea eraitsi eta han geratu zen orubea aprobetxatuta, Sagasti eta Kalegoi kaleak lotzeko bidea egin dute. Eguaztenean, hilak 21, zabaldu zuten bide hori. Oraingo, baina, Kalegoitik Sagastirako noranzkoan bakarrik erabili ahal izango dugu errepidea. Aurrerago, bi noranzko izango ditu.

BUZTINZURI ERE ZABALIK

Eguen Santu egunean, bestalde, Buztinzuri kalea zabaldu zuten. Jazko irailean hasi zituzten Buz-

tinzuri urbanizatzeko lanak, eta zoru guztia berritu dute. Buztinzuritik Sagastirako bidea ere, eskola ondoan, zabalik dago, bi noranzkoetan.

Aurrerantzean, noranzko bakarra izango du Buztinzurik. Oraingo, plaza aldetik Kalegoirako noranzkoan bakarrik erabili ahal izango dugu Buztinzuri. Izan ere, Talleres Antzuola izandako eraikina berritzen dihardute, eta aldazio bereziak jarri dituzte. Gero, baina, goitik behera bakarrik etorri ahal izango da.



Eguaztena ezkerre zabalik dago Sagasti eta Kalegoi lotzen dituen bidea.

LABUR

Haur parkea jarriko dute etzi, domeka, frontoian

Urtean hainbatetan moduan, haur parkea jarriko dute. Udalak antolatuta. Etzi, domeka, arratsaldean izango da hori. Udal Pilotalekuan.

17:00etan zabalduko dute parkea, eta 20:00ak arte, nahikoa jolas egiteko aukera izango dute hara joaten diren umeek. Era guztietako jolasak egongo dira haur parkean: gaztelu puzgarriak, auto telegidatuak...

Antzuolarrak txapelkun karta txapelketan

Erretiratuen Debagoieneko karta txapelketan, Antzuolako bi bikote izan dira txapelkunak. Dolores Saiz eta Dorotea Azkargortak briska txapelketa irabazi zuten. Antonio Larreak eta Luis Mari Jauregik, berriz, puntuatu irabazi zuten.

Gipuzkoa mailan jokatzeko dute txapelketa hori; hurrengo kanporaketa hilaren 29an jokatu dute Legazpin, Urola ibarrekoen aurka.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Martxoak 23

Ez da futbol partidurik jokatu Estalan. Gazteek ez dute partidurik, eta gainerakoek kanpoan jokatu dute.

EMAITZAK

FUTBOLA

La Salle 2 Antzuola 3 (Gazteak)

PILOTA

Deba Arroko txapelketa

Olalde-Aloña Mendi (nagusiak) . . . 22-15

Olalde-Arrasate (nagusiak) . . . 16-22

Olalde-Arrasate (kadeteak) . . . 22-5

KIROLAK

Berraondo finalerdietarako sailkatu da, Del Reyri irabazita

AINZANE IRIZAR

Aurreko asteburuan jokatu zuen Aritz Berraondok eskuz banakako pilota txapelketako lehenengo partidua. Del Reyren aurka jokatu zuen, eta 22-15 irabazi zion Aritzek. Horrela, finalerdietarako sailkatu da eta Leitzaren aurka jokatuko du hurrengo astean.


Lehendabiziko mailan ezin jokatu izanaren penaz, baina, animu onez ekin dio txapelketari Aritzek. Aurreko asteburuan, hain zuzen ere, jokatu zuen lehendabiziko partidua, eta finalerdietarako txartela eskuratu zuen. 22-15 irabazi zion Alberto Del Rey errioxarrari.

Iazko txapelaldunordea izanda, partidu bakarra irabazi behar izan du finalerdietara heltzeko.

Hala ere, uste baino lan gehiago egin behar izan zuen Berraondok, Del Rey mendean hartzeko. Zera esan digu Aritzek: "Nire lehendabiziko partidua zen, eta lehendabiziko partiduak beti izaten dira nekezagoak; urduritasunak ere izaten du eragina; gainera, bera bere jokoa egiten hasi zen, airez asko jokatzen du eta min egiten du".

HURRENGO, LEITZAREN AURKA

Leitza pilotari bizkaitarraren aurka jokatu beharko du finalerdietako partidua Berraondok. Partidu zaila izango dela uste du antzuolarrak: "Escuderori erraz



ARTIBOIA

Leitzaren aurka jokatuko du finalerdietako partidua Aritzek, datorren asteburuan.

irabazi zion Leitzak, eta partidu nekeza izango dut".

Txapelketa irabazteko aukeren gainean galdetuta, beti bezain

zuhur azaldu zaigu Aritz: "Ni nire jokoa egitera joango naiz, eta hala ere, ezin badut irabazi, ez da ezer gertatzen. Ikusiko dugu."



Begoña taldeko kapitain izendatu zuten taldekideek

Aurreko astelehenean hasi ziren *La flecha amarilla* lehiaketa emititzen, ETB2 katean. Hantxe ikusi ahal izan genuen Begoña Egaña antzuolarra; bi taldetan banatu zituzten lehiakideak, eta Begoña izendatu zuten bere taldeko kapitain. Ondo egin zituen, gainera, kapitain lanak, makila urdina eskuan zuela! Aurrera, Begoña, eta ea Santiagora iristen zaren!/A.I.

LABUR

Immersok erretiratuendako antolatutako bidaietarako izena emateko epea zabalik

Urtero bezala, Immersok hirugarren adinekoendako oporraldiak antolatu ditu. Hona hemen, eskaintzen dituzten aukerak: penintsulan edo Balear irletan, 15 edo 8 eguneko egonaldiak; Kanariar irletan, 8 eguneko egonaldiak; Portugalen, 8 eguneko egonaldiak; kultur ibilaldiak eginez, 6 eguneko irteerak; natura turismoa egiteko, 5 eguneko irteerak.

Informazio gehiago nahi dutenek eta oporraldietarako izena eman nahi dutenek, udaletxeko gizarte zerbitzuetara jo dezakete, maiatzaren 7a baino lehen.

Udalak bultzatutako etxebizitzetara eman diete lehenengoz okupatzeko baimena

Gaur, egubakoitz, Udalak bultzatutako etxebizitzetara lehenengoz okupatzeko baimena emateko zen Udala. Behin baimen hori emanda, jabekideak eskriturak sinatzeko eta salerosketa egiteko moduan egongo dira.

Azkeneko aldi honetan, etxebizitza multzo bakarrean hama sei etxebizitza egin ditu Udal Etxegintzak, Sagasti auzoan. Aurretik, beste bi etxebizitza multzo bultzatu zituen Udalak, Sagasti auzoan bertan. Denetara, 48 etxebizitza egin ditu Udal Etxegintzak azkeneko urteotan.

Mañarieta auzoko urbanizazio lanak amaitzear daude, ondoko garajea botata

Aurreko asteko eguaztenean eraitsi zuten Mañarieta auzo berriaren alboan aurreko etxebizitzari itsatsita zegoen garajea. Udaleko arduradunen esanetan, arau subsidiarioetan aspalditik aurrez ikusten zuten eraikin hori eraistea. Orain, Mañarieta auzoko urbanizazio lanak behar bezala egin ahal izateko, arau subsidiarioek aurrez ikusten zutena bete egin dute.

Gauzak horrela, laster joan ahal izango dute etxebizitza berri horietara bizi izatera jabekideek. Hamahiru etxebizitza egin dituzte, guztira, Mañarietan; Petxanima izeneko elkartea sortu zuten horretarako hainbat herritarrek.

Emakume Ausartak antzerki taldearen emanaldia maiatzaren 7ra atzeratu dute

Udalak etxez etxe banatu ohi duen kultura egitarauan, apirilaren 30erako zegoen iragarritako Emakume Ausartak antzerki taldearen *Un busto al cuerpo* antzezlan. Azkenean, baina, atzeratu beharra izan dute, eta maiatzaren 7an izango da.

Gaur egungo gizartearen gorputzak eta itxura fisikoak duen garrantziaren gainekoa da antzezlan. Hiru belaunalditako hiru emakume dira protagonistak; hirurendako da arazo iturri euren gorputza, eta emakumeetako batek gorputzean hainbat aldaketa egitea erabakiko du.

Anje Duhalderen kontzertua izango dugu, 'Iparraldea bertan' programaren barruan

Debagoieneko Mankomunitateak abian jarritako kultura egitasmoa da *Iparraldea bertan*. Egitasmo horren helburua da Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko zubiak eraikitzea. Euskal Kultur Erakundearekin elkarlanean antolatu ditu ekitaldi horiek Mankomunitateak.

Gauzak horrela, hainbat kultura ekitaldi egongo dira Debagoieneko herrietan; Antzuolan, Anje Duhalde musikariaren emanaldiaz gozatzeko aukera izango dugu. Datorren asteko zapatuan, maiatzak 1, izango da kontzertu hori, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 22:00etan. Bost euro ordaindu beharko da sarrera.

Elektrikako etxea laster eraitsiko dute, eta hamaika etxebizitza egingo dituzte hantxe

Datorren astelehenean aurrera izango ditu enpresa eraikitzaileak beharrezko baimen guztiak, elektrikako etxea bezala ezagutzen dugun eraikina eraitsi eta hantxe etxebizitzak egin ahal izateko. Hortaz, badirudi berehala hasiko direla eraikin zaharra eraistean.

Beheko auzoa, hortaz, hazi egingo da. Gainera, eraikin berria egitearekin batera, beste hainbat aldaketa ere egingo dituzte etorkizunean auzo horretan. Orain dauden bi etxebizitza multzoen tartetik irteera egingo dute Uzarragarako zubiaren aldera. Horrela, auzo barruko zirkulazio arazoak konpondu nahi dituzte.

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko apirilaren 23a / 183. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegí • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Lur azpiko zaborrontziak ipiniko dituzte Torrealdeako etxe berriak eraikitakoan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Azken udalbatzarrean, Torrealdea urbanizatzeko eta bertan babes ofizialeko etxebizitzak egiteko baldintzak adostu zituzten. Lanak zeinek egingo dituen erabakitze dago oraindik, baina besteak beste inguru horretan lur azpiko zaborrontziak ipiniko dituzte.

Torrealdean 16 etxebizitza libreko lehen blokea eraikitzen ari dira jadanik eta bigarrena maiztean hasiko dira altxatzen. Hirugarren blokea, 24 etxebizitzakoa, oraindik zehazteke dago noiz egingo duten.

Baina etxebizitza libreez gain, Torrealdean babes ofizialekoak ere egingo dituzte, 20 hain zuzen. Etxebizitzok uztaila eta iraila bitartean hasiko dira seguru aski eraikitzen.

Bestalde, Udaletik jakinarazi dute maiatza amaitsu aurretik babes ofizialeko etxebizitzaren bat lortzeko izena eman dutenekin bilera egingo dutela.

Etxe horiek eraikitze eta ingurua urbanizatzeko lanak zeinek egingo dituen oraindik erabakitze dago. Baina Udalak baldintzak ipini ditu horretarako. Urbanizazio lanek 1,5 milioi euroko aurrekontua dute.



ARTXIBOA

Guztira, lur azpiko sei edukiontzi ipiniko dituzte: lau Berraondokua inguruan eta besteak Torrealdeko etxe zaharren parean.

ZABORRONTZIAK

Torrealdeko urbanizazio lanen artean, bertan lur azpiko zaborrontziak ipintzea dago. Inguru hauetan berrikuntza da edukiontzi mota hau jartzea. Izan ere, Debabarrenean herri gehienetan jarri dituzten arren, Deba-

goienean Eskoriatzan baino ez dituzte ipini oraingoz.

Bi lekutan ipiniko dituzte lur azpiko edukiontziak: Lau Berraondokuan, gutxi gorabehera orain zaborrontziak dauden tokian, eta beste biak oraingo etxe zaharren eta berrien artean.

Lau jartzen dituzten tokian seguru aski zabor organikoarendako izango da bat, paper eta kartoiendako bestea, hirugarrena beirarendako eta azkena plastiko eta bestelako ontziendako. Hala ere, hori oraindik zehazteke dago, eta urbanizazio lanak egi-

Torrealdea urbanizatuko duen enpresa arduratuko da zaborrontziak ipintzeaz

terakoan erabakiko dute nolakoak izango diren ontziak eta zein zabor mota jasoko den beraretan.

Edukiontzien euren eta inguru egokian kokatzeko lanek 98.600 euroko kostua izango dutela jakinarazi dute Udaletik. Gastu horri aurre egiteko Eusko Jaurlaritzako Izartu programatik dirulaguntza jasotzeko eskaria egin zuen Udalak.

Urbanizazio lanak egingo dituen enpresa bera arduratuko da zaborrontziak ipintzeaz. Hala ere, kontuan hartu beharko da inguruko herrietan zein sistema erabiltzen den. Izan ere, zaborrontziak jasotzeko kamioi berak erabiltzen dituzte ibar osoan eta edukiontzi guztiak modu berean jasotzeko sistema ere bera izatea komeni da.

Elgetako Udaleko ordezkariak Eskoriatzakoekin egon dira, eta haiek pozik daude lur azpiko zaborrontzietan.

KIROLA

Zazpi taldek hartuko dute parte aurten areto futbol txapelketan

I.A.

Bihar, apirilak 23, hasiko da aurten areto futbol txapelketa. Lehenengo jardunaldian hiru partidu izango dira jokoan kiroldegi aurreko kantxan.

Sailkapen fasea jokatuko da ekainaren 6a bitartean eta jardunaldi bakoitzean hiru partidu jokatuko dira; zazpigarren taldeak atsedean hartuko du.

Behin lehen tarte hau amaituta finalerdietan zein taldek jardungo duten erabakiko da. Finala, berriz, Elgetako jaiak baino lehen jokatuko da, ekainaren amaiera aldera.

HERRIKO BI TALDE

Guztira, zazpi taldek eman dute izena txapelketan. Arrasatekoak dira bi, Bergara, Eibar eta Durangokoak talde bana eta herrikoak,

berriak, beste bi dira: Txapela eta La Kokotxa, hain zuzen ere.

Iaz torneoko finalean Chievo eta Ariñiketan taldeak izan ziren eta azken ekipo honek irabazi zuen txapelketa; talde hau aurten ere jokoan izango da Elgetan, baina Chievok ez du parte hartuko.

Talde txapeldunak 180 euro jasoko ditu, bigarrenak 90 euro eta gol gehien sartzen dituen jokalariek, berriz, 60 euro.



Elgetako Txapela eta La Kokotxa taldeak izango dira aurten txapelketan.

MUSIKA

Lau Itzal eta Nok musika taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, barikua, gaztetxean

I.A.
Gaur, barikua, kontzertua izango da gaztetxean gauean. Lau Itzal eta Nok musika taldeek jardungo dute bertan. Bi taldeek euren azken diskoak aurkeztuko dituzte, bertako lanak jende aurrean abestuz. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sarrerak hiru euro balio du.

Lau Itzal taldearen proiektua Xabier Solano, Etzakit taldeko ahotsa eta trikiti jolearen eskutik sortutakoa da. Solanoz gain, Txiki (Kashbad), Haritz (Sen) eta Koldito (Utikan, Mugatik) ziren taldeko kideak hasieran, baina 2002ko erdialdean Haritzek Lau Itzal utzi zuen eta honen ordez Gorka sartu zen taldean.

'SARTU' LAN BERRIA

Denek dakite izan zen taldeak kaleratu zuen lehen diskoa eta *Sartu* da lan berria. Diskoa rock estiloko 12 abestiz osatua dago, eta hitzek gai intimistak dituzte. Hitzak egiteko laguntzaile izan dituzte Jon Garmendia *Txuria*, Unai Iturriaga, Mikel Peruarena eta Joni Ubeda.

Abenduan hasi ziren diskoaren aurkezpen birarekin eta Elgetara gaur gauean iritsiko dira. Taldekoek esandakoa da: "Diskoa defenditzen saiatuko gara taula gainean, ahalik eta emanaldirik gogotsu eta indartsuenak emanaz". Beraz, kontzertu ona espero dezakete zaleek.

Nok Lekeitioko musika uztak eman duen taldea da. Etsaiak taldeko Paul bateria jolearen musika proposamen berria, hain zuzen ere. 2003an hasi zen konposaketa lanekin eta proiektuan burua eta arima jarriz aritu da Nok taldea biribiltzen. Paulekin batera Podrik, Lailak, Josebak, Gusak eta Juanmik osatzen dute taldea.

Punkaren jarrera nagusitzen da unez une Nok-en kantuetan, rap eta metalaren ukitu xumee-kin. Gitarra eta bateria kolpe sendoak entzuten dira hauen kontzertuetan.

'DBKATUAK'

Amorotoko Musikorta eta Donostiako Elkar estudioetan grabatu zuten Nok-ekoek *Dbkatuak* diskoa 2004ko urtarrila eta otsaila bitartean.

Musika eta hitzak Paulek egin ditu. *Dbkatuak* izenburuaren azpian hitz jokoa dago eta testuak debekatutakoaren ildotik doaz.

Lau Itzal eta Nok taldeen doinuak entzuteko aukera izango da, beraz, gaur, 22:30ean hasita, gaztetxean.

BERTSO TXAPELKETA

Bestalde, datorren barikuan, apirilaren 30ean, Plazatik Gaztetxera bertsolari txapelketako lehen kanporaketa jokatu da Elgetako gaztetxean. Gorka Lazkano, Jon Unanue, Oihana Bartra, Jokin Labaien, Orlando Arreitunandia eta Xabi Astigarraga bertsolari gazteek jardungo dute.



Lau Itzal taldekoek *Sartu* laneko kantuak eskainiko dituzte batez ere.

LABUR

Hirugarren adinekoendako bidaiak

Urtero bezala, aurten ere Imfersok hirugarren adinekoendako bidaiak antolatu ditu. 5 eta 15 egun arteko bidaiak dira eta Iberiar penintsulako hainbat txokotara, Balear eta Kanariar uhartera edo Portugalera joan daitezke adinekoak. Bestalde, kultura bidaiak eta natura turismoa egiteko aukera ere eskaintzen du Imfersok. Informazio gehiago nahi dutenek edo bidaietarako izena emateko asmoa dutenek udalategiko Gizarte Zerbitzura jo beharko dute maiatzaren 10a baino lehen.

Zapatuetako mezaren ordutegia aldatu egin dute

Udaberri hasieran ordu aldaketa egin genuen guztiok eta elizan ere eragin du aldaketarik horrek. Izan ere, hemendik aurrera zapatu iluntzeetako mezak 19:30ean izan beharrean 20:30ean izango dira. Elgetako apaizak esan digunez urtero egiten dute aldaketa hau. Hala ere, gainontzeko elizkizunek orain arteko ordutegi bera edukiko dutela jakinarazi digu. Hau da, egunero goizeko bederatzietan meza izango da eta baita domeketan eguerdiko hamabietan ere; azken hau meza nagusia izan ohi da.

ERREPIDEAK

Ubera eta Izarreko bihurguneak urrian hasiko dira konpontzen

I.A.
Aurten hainbat konponketa egin behar ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo ditu bigarren mailako errepideetan. Besteak beste, Bergara eta Elgeta arteko bidean dauden bi bihurgune handienak zabaltzeko asmoa dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailak 9.250.000 euro erabiliko ditu aurten bigarren mailako errepide sareak konpontzeko.

Aurreko legealdietan autobidea eta autobiak eraikitzen eta konpontzen egin dute lanik handiena, baina hemendik aurrera bestelako bideetan jardungo dute. Izan ere, kontuan hartu behar da errepide sare nagusiak 389 kilo-

metro dituela guztira, baina bigarren mailako errepideen artean 846 kilometro osatzen dituztela.

HERRIEN ARTEKO BIDEAK

Foru Aldunditik esan dutenez, herrien arteko bideak konpontzeak izango du garrantzirik handien. Baina horretaz gain, base-ri bideetan ere egingo dituzte hainbat lan.

Asfaltoa hobetzea, zirkulazio seinaleak arau berrietara egokitzea, segurtasun hesiak konpontzea... izango dira egingo dituzten lanetako batzuk.

Lanak ekainean hasiko dira eta uztailean beste zenbait konponketa egin ostean, abuztuan iritsiko dira langileak gure inguruetara. Orduan egingo dituzte, hain zuzen ere, konponketa lanak Bergaratik San Juan auzora doan errepidean.

BIHURGUNEAK

Hala ere, lanik gehienak urrian hasiko dituzte eta, besteak beste, Bergara eta Elgeta arteko bidean dauden bi bihurgune handiak konponduko dituzte: Uberakoa eta Izarrekoa, alegia.

Bihurgune hauen zabalera handitu egingo dute. Izan ere, gidariak zailtasunak izaten dituzte bertan. Orain dela gutxi ere, kamioi batek istripua izan zuen eta Izarreko bihurgunean gurutatuta geratu zen. Bestalde, aglomeratua ere berritu egingo dute errefortzu modura.

Lanak urrian hasiko dituzte eta bost hilabeteko epea izango dute langileek amaitzeko.

Aurrekontua, berriz, 830.000 euro da. Elgetako bihurguneetan egingo dituzten lanak dira Errepide Sailak aurten egingo dituen garestienak.



Auto istripu arina Uberan

Elgeta eta Bergara arteko errepidean istripua izan zen martitzen goizean. Bergararako noranzkoan zihoan Opel Astra autoa Ubera auzotik gertu errepidetik irten eta ia errekarra jausi zen. Hasieran zauritu bat egon zitekeela uste bazen ere, ez zuten inor anbulantzian eraman. Garabiak autoa erretiratu bitartean ertzainek zirkulazioa bideratu zuten./I.A.

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Lokatz-Arte
futbol taldea,
1959

Argazkian azaltzen diren gazte-
txoek Lokatz-Arte futbol taldea
osatzen zuten 1959. urtean. 13-15
urte bitartean izango zituzten
orduan, eta herriko futbol txapelketan
nagusitu ziren urte hartan.

Bergara Kirol Elkarteak antolatuta-
ko futbol txapelketan herriko auzoetako
taldeak ibiltzen ziren lehian: Mizpildi-
koak, Zubietakoak, Labegaraietakoak,
eta beste hainbat. Lokatz-Artekoak Oilo-
Kale eta Santa Ana aldekoak ziren.

Javier Madinabeitia Bergara Kirol
Elkarterako fitxaketak egiten zituen gaz-
tetxoen artean. Makina bat jokalaria Semi-
narioan hasten ziren futboleant, lagunar-
tean, eta ondoren Bergarako taldeekin
jokatzeko aukera izaten zuten.

Esan bezala, 1959. urtean Lokatz-Artek
irabazi zuen. Era berean, Javier Lazka-
nok golegile onenaren saria jaso zuen,
Jesus Ostolazarekin eta Jose Luis Gari-
tanorekin lehia handia izan eta gero.

Honako hauek dira aste honetako
erretratuan azaltzen direnak, ezkerretik
eskumara:

Zutik: Juan Luis Bikuña, Javier Arre-
gi, Jesus Blanco, Jose Ramon Pinedo,
Luis Miguel Lizarralde, Rufino Garitano
eta Andres Fernandez.

Makurtuta: Jose Luis Garitano, Juan
Ignacio Igarza eta Javier Lazkano.

Argazkia: Javier Lazkano.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero,
zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera.
Zain gaituzu!

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Ganbara
TABERNA


Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak •
Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta
plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak •
Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak •
Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak •
Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

IPINTZA INSTITUTUA

BATXILERGOKO AURRE-MATRIKULAZIOA

maiatzaren 3tik 7ra

Batxiler Teknologikoa
Praktikak Miguel Altuna institutuan

Batxiler
Zientifikoa

Batxiler
Humanistikoa

BILERA INFORMATIBOA

ate irekiak apirilaren 29an, 19:00etan

- Eskaintza zabala eta aberatsa
- Bide guztiak irekita (Unibertsitatea eta lanbide zikloak)

Bideratu ondo zure etorkizuna, zatoz ezagutzera!




SAN MARTIN
BERGARAKO

IPINTZA
IKASTETXE

M. ALTUNA
PUBLIKOAK



Ipintza Institutua: Boni Laskurain 19 • Tel.: 943 76 31 42 • Faxe: 943 76 06 80 • e-posta: 012981aa@hezkuntza.net • www.goieskola.net/ipintzabhi



Sinpletasunaren xarma.
Txikitasunean handi.



Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxe: 943 76 70 58

ILE APAINDEGIEN GIDA

EBA, ROSA, BEGOÑA, LORENA ETA ITZIAR / BEROTZI ILE APAINDEGIKOAK

'Sebastian etxekoek hilero azken berrikuntzen berri ematen digute. Esan genezake etengabe ari garela ikasten'

Zenbat urte daramatzazu orrazten?

Ikasketak 16 urterekin bukatu eta berehala hasi ginen lanean.

Modaren jarraitzaileak zarete?

Bai, noski, gure lanerako moda jarraitzea oso garrantzitsua da. Lanetik kanpo ere modaren jarraitzaileak gara.

Guk Sebastian etxearekin lan egiten dugunez, hilero azken berrikuntzen berri ematen digute. Esan genezake etengabe ari garela ikasten.

Zer-nolako bezeroak dituzue?

Denetariko bezeroak daukagu, ume txikietatik pertsona nagusietara artekoak.

Jendea ausarta al da?

Gaur egun jendea ausarta da, itxura aldaketa proposatzen diozunean ez dauka arazorik. Nahiz eta mutilak gehiago ausartzen ari diren gauza berriak egitera, oraindik ere neskak dira ausartagoak.

Jendeak zaintzen du ilea?

Jendeak ilearen osasuna baino gehiago ilearen estetika zaintzen du. Gure bezeroei ilea osasuntsu edukitzeko aholkuak eta tratamenduak eskaintzen dizkiegu.



Bezeroak ideiak garbi etortzen dira?

Bai, jeneralean bai, badakite zer itxura eduki nahi duten, eta aholkua eskatzen digute: ea zer kolore eta ile mozketa doazkien ondoen... Kolorea da momentu honetan gehien egiten duguna, jende gehienak ematen du kolorea.

Ile apaindegia bakarrik edo beste zer-bitzu batzuk ere eskaintzen dituzue?

Ile apaindegitik aparte, solariuma daukagu, Trucco etxeko makillajea eta manikura. Sebastian etxeko produktuak saltzen ditugu.

BEROTZI PELUQUERAS

D. Fleming 5

20570 Bergara

Tel.: 943 76 53 15

- Sebastian promozio bereziak
- Trucco makillajea
- Londres eta New Yorkeko azken tendentziak
- Schwarzkopf kolorea

Aukera onenak

AMPARO
ILEAPAINDEGIA

- Boni Laskurain 2 - Bergara
- 943 76 43 07

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Ilerako tratamenduak
- Makillaje bereziak
- Ile luzatzeak

ADATS

- Herri lagunak 4 - Bergara
- 943 76 49 51

- Solarium bertikala
- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua

disdira

- Masterreka 7 - Bergara
- 943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Azken joerak koloreetan

ileak

- Ozaeta 3 - Bergara
- 943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

IDOIA

- Espoloia 4 - Bergara
- 943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruazal garbitzea
- Solariuma

IZARRA

- San Pedro 23 - Bergara
- 943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutxarekin

KIZKUR

- Bolu 51 - Bergara
- 943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

Ostadar

- Ibargarai 42 - Bergara
- 943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutxarekin

ORRASKI

- San Pedro 6 - Bergara
- 943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma

Sanchez

- Fraiskozuri 4 - Bergara
- 943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozteak
- Klasikoa/modernoak
- Bizartegia
- Kolorea

Pepelu

- Zurradero 2
- BERGARA
- 943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozteak
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea